FORU AGINTARITZA POLITIKOAREN ETA BATZAR NAGUSIEN EZABAPENA (1800-1877)

JOSEBA AGIRREAZKUENAGA

IKERTZAILEA ETA HISTORIALARIA

XIX mendea iraultza liberalen garaia dugu eta Euskal Herrian, 1800an Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Batzar Nagusietako ordezkariek, Foru agintaritza politikoa partekatua sortu eta egituratu zuten, "Irurac bat", garaiko legedian oinarriturik. Ondoko hamarkadetan, foru agintaritzaren eragina, zabaldu zen euskal administrazio publikoan. 1800 edo 1876ko aurrekontuak aztertu besterik ez dago, Europan barreneko Estatuetan bezala. 1815 eta 1865 urte bitartean, bata besteko diru sarreren kopurua bider lau igo zuen eta beste horrenbeste gastuetan.[1] Baina aldi berean, agintaritzaren oinarri politikoen murrizketa saioak eta aldiak ere gertatu ziren, harik eta ezabapena 1877an iritsi arte. Urte tarte horretan, "Euskaldunak" nabarmendu ziren sujetu politiko bezala, literaturan eta politikan. Horregatik, 1852an, P. Egañak eta Blas Lopezek, Foru konstituzioa, "Euskal konstituzio" bezala formulatu zuten.

Baina sarritan galdetzen dugu, zer zen Forua? Galdera honi, bertso bidez Agustin Pascual Iturriagak, apaiz liberalak, honela erantzun zion 1838an, 1837ko Espainiar konstituzioak foruen bidezko aginteak erroiztu zituenean, gerra karlistaren une berean:

Fueroak esan nahi du
Gure herrietan
Ez zaigula sartuko
Inor ezertan;
Aita ta seme beti
Gure fronteretan
Armatuko gerala
Diraden gerretan;
Gainerakoetan
Guk gure Juntetan
Okasioetan
Aginduko degula
Geuren gauzetan.

1. Agirreazkuenaga J.-Ortiz de Orruño J.M.,"Las haciendas forales de Alava, Guipuzcoa y Vizcaya entre 1800 y 1878", *Ekonomiaz*, nº9-10. Gasteiz, EJ-GV., 1988, 76 orr.

Parlamentuaren agintaritza, hau da, Junta edo Batzar Nagusiena Europako kultura politikoaren oinarria dugu eta 1688an, *Glorious Revolution* delakoan Ingalaterran, Errege-erreginen gainetik nagusitu zen. XVIII mende bukaeran,1787an, ipar Amerikatako Estatu Batuetan konstituzio politiko federala idatzi eta estatu bakoitzak *"We the People"*, "Gu Herriak " izenpean onartua izan zen. Agintaritza politikoaren oinarria Kongresua eta Senatua, hau da, ordezkarien batzar nagusiak ageri dira. Laster batean, 1791ean Frantziako Asanblea nazionalak, aurreko erakunde guztiak desegin zituen askatasuna eta berdintasunaren izenean eta Erresuma berria, bat eta bakarra izango zela aldarrikatu zuen, 83 departamentutan banatua eta erregea hil ondoren Errepublika bihurtu zen 1793an. Beraz, Behenafarroako, Lapurdi eta Zuberoako batzar nagusiak desagertu arazi zituzten.

Espainiako erresumak Frantziako errepublikari gerra egin zion, 1793an eta 1795ean bakea sinatu ondoren, Espainiako Gortean, batzorde berezia antolatu zen, Euskal Herriko lurraldeen foruen bidezko agindeak aztertzeko eta murrizteko, gerra garaian Euskal Herriko agintarien Espainiar monarkiarekiko leialtasuna, behar besteko leiala ez zelako izan. F. Zamora Euskal Herrian espainiar armadaren auditore nagusi zenak Godoyri proposatu zion.. *"Si a esta paz siguiese la unión de las provincias al resto de la nación sin las trabas forales que las separan y hacen casi un miembro muerto del reino, habría V.E. hecho una de aquellas grandes obras…."*. (1795.8.10). Honen berri, A. Canovas del Castillok, 1873an argitaratu zuen *Los Vascongados* liburuaren hitzaurrean.[2] Bere ustez, Espainiar nazioaren batasuna oraindik egiteke zegoen. 1839ko Urriko 25eko legeak Foru eta Espainiar konstituzioen artean berdinketa juridikoa ekarri zuen eta foruen moldaketak berdintasun juridiko hori eten behar zuela uste zuen Gobernu zentralak eta horixe dugu 1876ko uztaileko 21eko legearen oinarri juridikoa eta helburu politikoa.[3]

BATZAR NAGUSIAK, AGINTE POLITIKOAREN OINARRIA (1812-1839)

1800an, "Irurac bat" politikoa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako aginte partekaturako egituraren legezko izaera, Espainiako Carlos IV erregeak onartu eta sinatu egin zuen. (1800-7-16). Aginte partekatua sortzeko egitasmoa, 1793an asmatu zen. 1793an Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako batzar nagusietako ordezkariek, Bilboko bileran erabaki zuten, besteak beste, Batzar nagusi komuna ere antolatzea adostu zuten. Baina horrelakorik ez zen antolatu. Hala ere, foruen bidezko agintaritza politiko eta ekonomikoa sustatzeko elkartu egiten ziren, gobernu komuna irudikatuz.

Iraultza liberalen garaian, Europako herri guztietan, liberalismoaren aldeko eta kontrakoen arteko taldeak egonkortu ziren eta gurean ere, aurrerantzean liberalak eta karlistak bereiztuko dira.

Baionan Espainiarako Konstituzio liberala erabakitzerakoan, 1808an, Batzar nagusietako ordezkariek, Foru konstituzioaren jarraipena aldarrikatu zuten. Cadizeko Espainiako konstituzio liberal berria zin egiteko, Bilboko San Nikolas elizan, Bizkaiko Batzar Nagusiak bildu ziren, 1812an. Gehiengoak zera erabaki zuen, 2 Konstituzioak, Espainiako eta Bizkaikoa onak eta bateragarriak zirela eta gutxiengo batek Espainiakoa nahikoa zela adierazi zuen. Beraz, Diputazioa berria aukeratu zuten eta zerga sistema berria erabaki ere gerra gastuak ordaintzeko. Baina Espainiako agintariek Espainiako konstituzioa soilik egon behar zuela indarrean agindu zuten eta horretarako armada bidali zuten.

Fernando VII erregea itzuli eta Cadizeko konstituzio liberala ezabatu ondoren, Lege zaharraren arabera, Batzar nagusiak indarrean jarri zituen. Baina 1815eko azaroaren 6an, *Junta de Reforma de Abusos de Real Hacienda de las Provincias Vascongadas* izendatu zuen. 1796an Godoy sortu zuen batzordearen ildoari jarraituz, J. A. Llorenteren *Noticias históricas de las Provincias Vascongadas* (1805) liburuko argumentuari jarraituz, 1819an txostena argitaratu zuen. Besteak beste zera proposatzen zuen: aduanak kostaldean jarri, Diputazioen aginteak murriztu, pase forala ezabatu eta ondorioz Euskal Herriko produktu industrialak Espainian gainkargako aranzelik gabe salduko zirela. Lehenago, 1817an Gipuzkoari erret aginduak adierazten zion, foruen bidezko agintea indarrean egongo zela, "sin perjuicio de los intereses generales de la nación y del sistema de unidad y orden". *Irurac bat*eko gobernua

2. Canovasen ustez arazo juridikoa zen: *"sobradamente he dado a entender al principio, que lo que para mí hay de esencial en la cuestión controvertida,(independencia originaria y unión a la Corona de Castilla con pactos voluntarios) no es tanto materia de crítica, como de decisión jurídica, inspirada por los principios universales del derecho moderno"*. Canovas del Castillo, A. ,in Rodriguez Ferrer Miguel, Los Vascongados, su pais, su lengua y el Principe L.L. Bonaparte. Madrid, Imprenta J. Noguera, 1873, 47. Orr.

3. Gaian sakontzeko, ikus: Agirreazkuenaga Joseba, *Euskal Herritaren burujabetza. Euskal herritarren autogobernu auziaren bilakaeraz (1793-1919): Foruen bidezko erakundetzetik Autonomia Estatutura.* Irun, Alberdania,2012.

bildu zen (1817-12-6) eta adierazi zuen *"el sistema de unidad es muy poco análogo sino incompatible con el Gobierno Monárquico que pide esencialmente clases, distinciones y privilegios"*[4] J. Ybañez de la Renteriak Bizkaiko Diputazioaren aginduz idatzi zuen txostenean erakusten zuen Europako beste hainbat erresumetan ohikoa zela, lege eta erakunde desberdinez osoturik izatea. Bestalde, euskaldunak sujetu politiko bezala nabarmentzen hasi ziren, lege zaharraren defentsa eginez, 1817 inguruan Abandon zabaldu ziren bertsoetan.

> *Gorde izan da beti / garbiro fedea*
> *baita geure legeak / eta berbeitea.*
> *Erbestetar gaiztoak / nahi eukezan galdu*
> *euskaldunak eztabe / bururik makurtu.*
> (Antxinako euskaldunen alabantzak)

Laburbilduz, 1819 eta 1820an jadanik, Foru agintaritza politiko eta ekonomikoaren murrizketa burutzeko ahaleginean, Espainiako absolutistak eta liberalak, bat zetozen. 1820an Espainiar konstituzio liberala indarrean jarri zenean, Bizkaiko Batzar Nagusiek berriz ere, ezabatuak izan aurretik, Bizkaiko konstituzioa indarrean egotea proposatu zuten edo/eta zor publikoaren negoziaketa. Absolutismoaren aldi berrian, 1824an Lopez Ballesteros ministroak, "Kupoa", izen honekin, urtero ordaintzea eskatu zuen, 7 miloi erreal eta azkenik kupoaren ordainketa burutzeko ekarpena honela adostu zuen Irurac bateko gobernuak, 1826an: Arabak %27,6, Bizkaiak %37,9 eta Gipuzkoak %34,4. Ondoren armadarako lehorreko mutilak ere eskatu zituen Gobernu zentralak, itsas armadara kostaldekoak joatea ohikoa zelako.

1833ko karlisten oldarraldiak errege absolutua Madrillen agintari jartzeko zuen helburu nagusi eta hasieran porrota izan arren, ondoren, Euskal Herriko lurraldearen gehiengoa bereganatu zuen. Foru agintearen jarraipena ere jokoan zegoen eta 1834tik aurrera Euskal Herriko liberalek foruen bidezko aginteen jarraipena eskatu zuten. Bizkaiko Diputazioak 1836an euskal "nazionalitatearen" bermetzat hartzen zuen: *La Constitución formada en* Cádiz *restituía y ampliaba los antiguos y olvidados fueros de la corona de Castilla y Aragón al mismo tiempo que despojaba a los Vascongados de su nacionalidad y leyes fundamentales y disminuía sus goces sociales.*(1836-5-24). Gerra garaian karlistek bere agindupeko lurraldeak kudeatzeko Diputazio karlistak sortu zituzten. 1837ko Konstituzioan oinarrituz, lege batez, Espainiako Gobernuak ezabatu egin zituen Batzar Nagusien bidez aukeraturiko Foru Diputazioak,"Diputación foral" izendapena lehendabizikoz ageri zelarik, legezko testu batean. (1837-9-16). Baina foru aginteen berreskurapenaren arazoa, gerra karlistako giroan txertatu zen eta Bergaran sinaturiko hitzarmenean (1839-8-31), gerrari amaiera emateko erdibidea izan zen. Hala ere, Diputazio karlistek ez zuten onartu hitzarmena, Karlos erregaia, Espainiako errege ez zelako egin. Bergarako hitzarmenaren ondoren eta Espainiako Parlamentuak, 1839ko urriaren 25eko legea onartu ondoren, 1837tik ezabaturik zegoena, Foruen bidezko aginteak eta erakundeak indarrean berriz jartzeko balio izan zuen.

ESPAINIAKO PARLAMENTUAK, 1839KO URRIKO 25EKO LEGEA

Legeak konfirmatzen ditu Foruak baina *"sin perjuicio de la unidad constitucional de la Monarquía"* eta ondorioz, berehala Batzar nagusiak indarrean jarri ziren foru erakundeak aukeratzeko, Nafarroan, aldiz, Diputazio probintzialaren erakundeak aginte osoak bereganaturik jarraitu zuen, Nafarroako ordezkarien batzar nagusirik edo Korterik, antolatu gabe. Bestalde, Espainiako lege berriaren bigarren artikuluak foruen moldaketa burutzera behartzen zuen, Espainiako konstituziora egokituz. "Euskal auzia", hau da, auzi politikoa abiatu zen honezkero.

Araba, Bizkaia, Gipuzkoako Batzar nagusietan izendatu ziren ordezkariak eta Nafarroako Diputazioak beste horrenbeste egin zuen, Espainiako Gobernuarekin foruen moldaketa konstitucionalaren negoziaketan aritzeko eta 2 estrategia azaldu ziren: Nafarroko ordezkariak aginte politikoaren ordez, foru ekonomikoak bermatu nahi zituzten: Horretarako, Nafarroan gertatu zen elizaren lurren desamortizazioa egonkortu eta Nafarroako zor publikoak Estatuak bermatzen zuen. Beraz, erreskate ekonomikoaren ordainez, soberania eta aginte politikoa galera. Baina zor publikoaren kudeaketa, Diputazioko agintarien esku gelditzen zen. Espainiako probintzia bihurtzen zen Nafarroa baina probintzia berezitua, ogasun publiko osoaren agintea, udalena barne, Nafarroako Diputazio probintzialaren esku.Espainiako Parlamentuak 1841eko abuztuaren 16an Nafarroako Foruak moldatzeko legea erabaki zuen.

4. Agirreazkuenaga J.,La articulación político-institucional de Vasconia: Actas de las Conferencias firmadas por los representantes de Alava, Bizkaia, Gipuzkoa y eventualmente Navarra(1775-1936). Bilbao, Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako foru aldundiak, 1995, lehen liburukian, 202 orr.

Araba,Bizkaia eta Gipuzkoakoak aldiz, aginte politikoa eta ekonomikoa bermatu nahi zuten eta horregatik arbuiatu zuten Nafarroaren eredua, 1840an. Beraz, foruen moldakuntzarako legea, geroko gerora luzatzea erabaki zuten. Baina, hala ere, Espainiako gobernu zentralak bere kabuz moldaketak burutzen hasi zen, arloz arlo: Espainiako sistema judiziala indarrean jarri zen bere horretan, pase forala ezabatu 1841ean, aduanak kostaldera eta Pirineotako mugan (1841) eta batzar nagusiak ere ezabatu zituen Esparterok baina 1844an berriz indarrean ezarri ziren.

Bestalde, berrikuntza ideologikoa ere abiatu zen 1839tik aurrera. "Abertzaletasun forala" "patriotismo foral" delakoa Pedro Egañaren esanean, sustraitzen joan zen euskal liberal buruzagien artean eta abertzaletasun forala karlista batzuk ere erakartzeko baliagarria izan zitekeen. Bizkaiko Diputazioari idatzi zion gutun batean P. Egañak adierazi zuen: *"Ahí no debe haber carlistas ni liberales, moderados ni exaltados, sino Fueristas o lo que es lo mismo, buenos y leales Vascongados. Cuando un pueblo está amenazado de perder su nacionalidad, es mal ciudadano el que predica la división..."* (10.07.1844).

"EUSKAL NAZIONALITATEA" ETA "EUSKAL KONSTITUZIOA" KATEGORIA BERRITZAILEAK, DISKURTSO POLITIKO LIBERALEAN, 1850EAN

1850ko urtarrilean Madrilen ziren, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foruen moldaketarako ordezkariak eta Gasteizen hiru Diputatu nagusien artean estrategia aldaketa bat adostu zuten: Geroko gerorako utzi beharrean iniziatiba hartu eta indarrean gelditzen ziren foru aginteak, legez egonkortzea, hau da, foruen moldaketarako legea negoziatu behar zen. Baina Bizkaiko buruzagien artean zatiketa agertu zen eta horren ondorioz, ordezkari ziren Loizaga eta Hormaechek, Bizkaiko ordezkaritzari uko egin zioten.

Blas Lopezek, Arabako Batzar Nagusietako legelari nagusia zenak, idatzi zuen, foruen moldaketako behin behineko proposamena. Bizkaian adostasunik ez zegoenez gero, Diputaziokoak maiatzerako Bizkaiko Batzar Nagusia deitu zuen eta bertan P. Egaña, I. Ortes de Velasco, B. Vivanco Arabako ordezkariek, L. Zavala, V.Olano,F. Palacios Gipuzkoako ordezkariek 1850ko maiatzaren 5ean, proposamena aurkeztu zuten: *"Las provincias vascongadas se encuentran ho yen una de aquellas situaciones graves y solemne que deciden para mucho tiempo la vida de un pueblo,conservando o destruyendo su nacionalidad"*



Une berean, Foru osoak ala bat ere ez, *todo o nada,* Bizkaiko foruzale batzuen aldarrikapena zen. Foruzale karlisten ikuspegian, foruak lege zaharraren ikurtzat hartzen ziren. Forua osotasunean hartu behar zen, erlijioaren parean sakralizatu zen eta beraz, negoziatu ezina bihurtzen zen. Bilboko ordezkari Eulogio Larrinaga alkate liberal foruzalea, Gipuzkoak eta Arabak proposatutakoaren alde agertu zen baina 48 batzarkidek, batzorde berezituan txostena idatzi eta aurkakoa proposatuz, txostena prestatu zuten, euskaraz eta gaztelaniaz.Txostenaren edukiaren giltza eta desadostasuna Araba eta Gipuzkoako ordezkariekin, ondoko esaldia laburturik dago: Negoziatzen hasi aurretik, 1850an, *"aurrerantzian bere eukiteko euren forubak osotasun eta betetasun guztian... Bizkaiko semiai oraindik falta jakeena foruak osoz eukiteko, Bizkaitarrak ain gogotik nai ta gura dabeen legez."*

Beraz, ez ziren inolako negoziazioan sartuko, harik eta forua bere osotasunean, 1839ko

egoerara itzuli arte, aduanak barru aldean eta abar, bestelakoa Estatuak bere kabuz egindako aldaketen onespena litzatekeelako. Baina Estatu-nazio espainiarra, ogasun erreformaren ondoren (1845) egitura boteretsuagoa zen. Eta laster batean ageri zen. J. Bravo Murillo Espainiako gobernu buruak, 1852ko ekainaren 4an foruen moldaketarako egitasmo berria aurkeztu zuen. Euskal aginteak gobernadore zibilaren azpian gelditzen ziren. Francisco Palacios Gipuzkoako ordezkariak adierazi zuen: foru moldaketa baino gehiago foruen amaierako proiektua zela. Laburbilduz, Gobernu espainiarrak Estatuko administrazio periferikoa, gobernadore zibilaren ardurapekoa zela aldarrikatzen zuen.

Negoziazio batzordearen aurrean, 1852ko azaroaren 7an, P. Egaña eta B. Lopezek, memoria luze eta sakona irakurri zuten eta bertan laburbiltzen dute euskal ordezkarien, foruzaletasun berriaren doktrinaren printzipioak:[5] *1º- Administración del país por el país, entendida en toda su pureza, y practicada con absoluta independencia de otro poder estraño. 2º- Franquicia de quintas y contribuciones onerosas. 3º- Libertad mercantil. 4º- Para defender y salvar contra toda invasion injusta los anteriores derechos, la Constitución vascongada tiene un medio eficacísimo, testimonio a la vez y garantia de su originaria independencia: el Pase Foral,(…) Sin el Pase Foral la autonomía vascongada, que todos dicen querer respetar, es una formula vana sujeta a los caprichos del poder."*

Foruzaletasun liberal edo zibilaren printzipioak ziren. Gipuzkoako ordezkariak, A.I. Altunak, *Bases con las que se pudieran sustituir las presentadas por el Gobierno para el arreglo de los fueros* izeneko egitasmoa aurkeztu zuen.

Negoziazioaren giroan, 1850an giro foruzalea bizi berritu zen eta foruak desagertzear zeudela, zabaldu zen bereziki 1852an. Manuel Mazarredok, euskal herrialdetarako kapitain nagusiak, 1852ko udan, armadako 4 bataloi eskatu zituen. Testuinguru horretan Iparragirrek Gernikako arbola konposatu zuen eta kantari hasi zen,1852an, erbestetik etorri berria zela, Bilbon eta Donostian. Berehala kantaldi arrakastatsuak bihurtu ziren. Manuel Mazarredok, J.M. Iparragire erbesteratu egin zuen euskal lurraldeetatik eta 1853an Madrillen kantatu zuen Gernikako Arbolaren kanta, ereserkia bihurtu zen.

Bravo Murilloren gobernua erori egin zen eta foruen moldaketarako legearen negoziazioa bertan behera ere. Dena dela, ondorengo urteetarako Gobernu zentralaren proposamena, foruen moldaketarako espedientean gelditu zen, erreferentzia nagusitzat, 1876an ere.

1850ko hamarkadan diskurtsu politiko foruzalean, gogoeta berriak azaldu ziren: "*Consejos al pueblo vascongado"* (1850) foruen moldaketarako liburuan, R.Ortiz de Zaratek euskal herritasuna aldarrikatu zuen, indarrean zegoen autogobernua bermatzeko. Foruzaletasuna "vascongadismoan" bihurtu zuen eta *Irurac Bat* egunkari berria 1856an sortzen denean, euskal bloke edo alderdi baten alde ageri da eta alderdi hori ez zela nahastu behar Espainiako alderdikerietan. Horrez gainera euskal herriaren berezitasunaren izaera ere aldarrikatzen zuen.

1859an, J. Posada Herrerak, 1800tik ohiko ziren hiru Diputazioen arteko bilkurak, gobernadore zibilaren baimenez eta babespean egiten ez zirenez, debekatu egin zituen. Errege-aginduak agertzen zuen pentsamoldea eta filosofia politikoa,adierazgarria zen: "*Suponer que las Diputaciones forales de las Provincias Vascongadas,pueden reunirse cuando como y donde les parezca para tratar de los asuntos que le acomode sin intervención de los Gobernadores sería sostener el principio absurdo y más que absurdo peligroso e imposible en toda buena administración de que puede haber un Estado dentro de otro Estado y negar al Gobierno por consiguiente el derecho que la constitución y las leyes le dan de suprema vigilancia en todos los ramos de la administración."*

1862an, Gasteizeko Eleiz Barrutia, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoakoa sortu zuen Eliza katolikoaren administrazioak eta 1864an, Nafarroako Diputazioak proposatu zien Araba, Bizkaia eta Gipuzkoakori, *Laurac bat* egitasmoa.

Aldi berean, 1860ko hamarkadan, foruzaletasunaren baitan, *Irurac Bat* egunkariaren ondoan, Bilbon, *Euscalduna* ere argitaratzen zen, ikuspegi tradizionalistan oinarrituz. 1864an, Espainiako erresumak Italiako estatu bateratu berriak, aitasantuaren agindupeko lurraldeak hartu zituenez gero, katolikoen artean zatiketa izan zen eta *Euscalduna* egunkariak foruzaletasunaren definizioan eliza katolikoaren defentsa sartu zuen. Bizkaiko Batzar nagusietan "*Jaungoikoa eta Foruak* " izeneko aldarria egin zuen Loredok, Portugaletako ordezkariak. Aurrerantzean, foruzaletasun teokratikoa zabaldu zen. 1864ko uztailaren 24an, Bizkaiko Batzar Nagusian 3 batzarkidek Euskararen katedra Bilboko Institutuan

5. *Breves apuntes en defensa de las libertades vascongadas. Escrito leido a la llamada Comisión de arreglo de Fueros nombrada por el Señor Don Juan Bravo Murillo en 1852.* 1870an, Bilbon argitaratua.

sortzeko proposatu zuten, *"allí donde concluye la lengua de los pueblos concluye su nacionalidad"*.

1869ko hauteskundeetan, Euskal Herriko barruti guztietan, batean izan ezean, *Jaungoikoa eta Foruaren* aldeko kandidatuak Espainiar parlamenturako ira-bazle atera ziren eta karlismoak bereganatu egin zituen, baina horietako batzuk Espainiako parlamentuan legearen barruan jokatzearen alde ziren bitartean, beste batzuk borroka armatuaren bidez, karlisten erregegaia Carlos VII izenekoa Espainiako errege bihurtzea nahi zuten. Azken joera honen aldekoak 1870an jadanik ahaleginetan hasi ziren. 1872ko oldarraldian, karlistek porrot egin zuten eta Amorebietako hitzarmenaren bidez, amnistiaturik gelditu ziren. Urte bukaeran berriz ahalegindu ziren eta 1873an, Espainiako lehen Errepublikaren garaian, Euskal Herriko lurralde zabalak bereganatzen hasi ziren.

Beraz, 1870an, 3 foruzaletasun joera ageri ziren: Liberala, demokratiko-errepublikanoa eta tradizionalista-karlista. Joaquin Jamar izan zen, hizkera eta ikuspegi demokratikoatik abiatuz foruzaletasun liberal demokratikoaren formulazioak argitaratu zituena.

1876KO UZTAILAREN 21EKO LEGEA: FORU AGINTEAK ETA AUTOGOBERNU POLITIKOA EZABATZEKO LEGEA.

1875ean, Espainian errege berria Alfonso XII zen, Martinez Camposek eta beste Espainiako armadaren buruek jarrita (1874-XII-29). Karlisten kontrako gerra 1876ko otsailean bukatu zen eta Canovas del Castillok ez zuen astirik galdu eta 1876ko apirilaren 6an erret agindua argitaratu zuen. Sarreran, Foruak, gerra eta karlistak nahastu egin zituen *"El término que sin pactos ni concesiones previas acaba de tener en las Provincias Vascas la guerra civil, (…) la especial situación en que todo el antiguo régimen foral de las dichas provincias, por los sucesos mismos de la guerra, se encuentra,; las manifestaciones inequívocas de la opinión pu lica, tanto dentro como fuera de España, pronunciada por que se corone inmediata y definitivamente, la grande obra de la unidad nacional*". atzar Nagusiak aurrerantzean Bilbo, Donostia eta Gasteizen antolatu behar ziren. Beraz, euskal erakundeak ordezkariak izendatu behar zituzten, Madrillen, maiatzaren 1ean foruen moldaketako egitasmoari ekiteko. Sagarminagak eta beste euskal liberalak adierazi zuten ordea foruak ez zeudela gerraren jatorrian, foruzaletasuna, liberalen politika zelako, bereziki.

Cánovasek abagunea erabili nahi izan zuen, autogobernua auzitan jartzeko eta 1873an, aurreratu zuen bidetik, juridikoki foruen bidezko aginte publikoa desegiteko. Espainiako liberal sagastinoek, liberal sutsuen ondorengoek, horretan bat zetozen. Beraz, Espainiar konstituzioaren nagusitza juridikoa eta politikoa, argi eta garbi utzi ezkero, ez zuen oztoporik jartzen foru erakundeen jarraipen formalari, lehen unean behintzat.

Cánovasek foruen moldaketarako lege egitasmoa erakutsi zien euskal ordezkariei 1839ko legearen haritik maiatzaren hasieran. Argi eta garbi esan zien: Garrantzitsua zera zen, Espainiar ogasunean dirutan ekarpen arautua ordaintzea eta soldadutzarako mutilen kintak jartzea.

Hiru euskal herrialdeetako ordezkariek Madrillen ez zuten onartu Cánovasen lege egitasmoa. Foruen moldaketa baino Foruen autogobernuaren amaiera zelako.

Desadostasun nagusia, 1839ko urriaren 25eko legearen interpretazioan zegoen. 1876ko



Eugenio Azcue: *Irurac bat.* (Gipuzkoako Diputazioa)

maiatzaren 5ean hiru Diputatu nagusiek erabaki zuten, foruak agindutakoan oinarriturik, *"las Vascongadas han contribuido siempre en la forma establecida por el fuero"* eta horrela jarraituko zutela burutzen. Beraz, legea betetzen ari zirelakoan zeuden.

Ondoren, Canovasek, egitasmoa lege bihurtzeko tramitazioari ekin zion. Espainiako Senatua eta Kongresua eztabaida gune nagusi bihurtu ziren. Senatuan Aguirre Miramon izan zen, euskal senatarien artean, diskurtso politiko eta juridiko sendoena egin zuena, 1876ko ekainaren 20an. J. M. Aguirre Miramon (Donostia, 1812-1887) esperientzia luze zabaleko legegizona izan zen, Esparteroren aldekoa 1841ean, Espainiar Estatuko funtzionarioa eta Manilan epaileen buru izan zen. Liberalismoaren printzipioen defendatzailea izateaz gain, foruzalea ere bazen eta karlisten aurka nabarmendu zen.1839ko Foruei buruzko legea, lege berezia zela adierazi zuen: *Esa ley de 25 de Octubre de 1839 no es una ley común, sino que es una ley paccionada y que así lo han reconocido los hombres más eminentes del Estado"*. Euskal erakundeak leialak izan zirenez gero, batasun konstituzionala ez zen eztabaidan, sendo baitago eta beraz, lege berria ez da foruen moldaketarako, foruak ezabatzeko baizik.J.M. Aguirre Miramon, A. Cánovas del Castilloren liberalismo kontserbadorearearen jarraitzailea zen.

Senatuko bozketan, euskal ordezkari guztiek ezezko borobila eman zioten lege egitasmoari.

Kongresuan, aldiz, Arabatik parlamentari zena, M.B. Moraza, nabarmendu zen. M.B. Moraza (Gazteiz, 1817-1878) legegizon prestua zen. Blas Lopez hil zenean, bera bihurtu zen Arabako legelari nagusi. Historia arloan pertsona aditua eta jantzia izanik, argudio historikoek garrantzi handia hartu zuten. Laburbilduz, bere ideia nagusien oinarrizko baieztapena eta abiapuntu ideologikoa hauxe zen: *"Los fueros de las Provincias Vascongadas arrancan de su primitiva independencia y no son concesiones de nadie"*. Beraz, berezko agintea sortzeko eta indartzeko bazegoen egon zuzenbidean oinarriturik. 1839ko urriaren 25eko legea hauxe zen: *"La regulación de las relaciones de aquel país con el Poder Central"*.

Liberalak izan ziren foruzaleak eta foru administrazioaren kudeatzaileak ere. Foru bidezko autogobernua zertan zetzan ere zehaztasunez azaldu zuen. *"Los fueros serán abolidos, no porque haya razón ninguna para ello y el país soportará con resignación el mayor de sus infortunios, esperando que algún día la Corona y la Nación le acordarán la reparación justa que confía obtener."*

Azkenik, C. Villabasoren diskurtsoa gogoratu behar dugu. Bilbotarra zen, kazetaria, *Irurac bat* egunkariaren zuzendaria izan zen. Europako politikan eta nazioarteko politikan aditua. Bere diskurtsoan saiatu zen erakusten Euskal Aldundien eraketa berezia izan arren, Europako estatu gehienetan ere gertatzen zela horrelakorik, bereziki, inperio austrohungariarrean. Beraz, nazioarteko kasuak aztertuz, autogobernurako borondatea agerikoa zenez gero, ez zela ez berezia ezta pribilegiozkoa euskal herrialdeetan autogobernua indarrean izatea. Batzar Nagusien erabakia ere aintzat hartu beharrekoa zela aldarrikatzen zuen.

Espainiar Parlamentuan zeuden Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hautetsiak ezezkoa bozkatu zuten. Baina Cánovasek bere neurriko legea lortu zuen aurrera ateratzea eta Gobernuak legea bere erara aplikatzeko aukera zuen. Horrez gainera, 1876ko uztailaren 24an, Bilbon agintaritza militarrak foruen aldeko artikulurik argitaratzea debekatu zuen:*"Publicada como ley la supresión de los fueros, prohibida por el Excmo Sr. Capitan general y en jefe de este ejército toda comunicación en la prensa contraria a esta ley y ocupadas estas provincias militarmente;prohibo terminantemente en ese periódico la publicación de todo escrito favorable a los fueros"* (El Noticiero Bilbaino, 1876-7-25). Horrez gainera, salbuespeneko egoera zegoen, garantia edo berme konstituzionalak Euskal Herrian bertan behera izanik.

Euskal Batzar Nagusiek ere erabaki behar zuten 1876ko uztailaren 21eko legeari buruzko portaera edo nola aplikatu, baina legeari aurre egiteko eskumenik gabe zeudenez, lankidetzarik bere aplikaziorako ez burutzea erabaki zuten. Fidel Sagarminagak legea aplikatzea foru erakundeen bidez ezinezkoa zela zioen.

1877an jadanik, Espainiako Gobernua armadarako deia egiten hasi zen, kintoak edo euskal mutilak soldadu joan zitezen. Udalak erresistentzia pasiboan zeuden. Azkenik, indarrez aplikatu zuen Armadak. Giro horretan kokatu behar da, Quesada eta Olazabalen arteko azken ahalegin edo egitasmoa. Quesada militar burua zen, bake giroa kontrolatzen zuena. Militar horren ustez, euskal liberal foruzaleak bereganatzea garrantzitsua zen, gerra zibilean Estatuarekiko guztiz leialak izan zirelako. Horregatik ahalegin bereziak egin zituen legearen aplikazioa ahalik eta malguena izan zedin. Eta giro horretan foruen moldaketa alternatiboa bideratzeko Olazabal eta Quesada jeneralen artean hitzartutako lehen proiektua burutu zen, laburbilduz Espainiako aurrekontuetan ezarritako kontribuzioak ordaindu eta mutilak soldaduskarako bildu beharrean, ordezko diruz ordaintzea. Gipuzkoa eta Arabako Batzar nagusiek onartzeko prest ageri

ziren. F. Sagarminaga Bizkaiko Diputatu nagusiak, aldiz, dimisioa aurkeztu zuen. Azken ahalegin betean, Bizkaiko "Erregimenduko" buruzagien batzarra (1877-3-26), 2 taldetan zatitu zen: Araba eta Gipuzkoako aukera malguaren aldekoak,13 kide eta bestetik, Gobernu zentralarekin lankidetzarik onartzen ez zutenak, 16 kide. Ahaldun Nagusi izandako Juan Tellituk zera proposatu zuen: "*se le reconozca el incuestionable derecho de formar entre el Pirineo y el Ebro, un Estado independiente, a la manera de una pequeña Suiza*". (1877-03-23).

Hala ere, Bizkaiko Batzar nagusiak Bilbon bildu ziren 1877ko apirilaren 18an. Batzordean bildu ziren 1876-7-21. eko legeari buruzko txostena burutzeko eta honetan gehiengoak erabaki zuen, ez onartzea eta lankidetzan ere ez jardutea. Horren jakitun, Batzar Nagusiaren osoko batzarrera txostena iritsi aurretik, Cánovasek Gobernadore militarrari Batzar Nagusia desegitea agindu zion. 1877ko apirilaren 26an argitaratu zen agindua eta hurrengo egunean Diputazioak protesta egin zuen. Baina Cánovasek, 1877ko maiatzaren 5ean, Foru Diputazio osoa erret aginduz ezabatu zuen eta beraz Bizkaiko Batzar Nagusiak. Ondoren, Diputazio probintziala izendatu zuen,(1877-5-14) Manuel M. Gortazar presidente izendatuz. *La Paz* egunkariak, Madrillen argitaratzen zenak maiatzaren 17an, 283 zenbakian honelakoa adierazi zuen: "*Destruyó por completo, no solo las libertades y franquicias del Señorío, sino hasta su misma organización, cuidadosa y solemnemente protegida por la misma ley de 21 de Julio de 1876, cuyos términos traspasó evidentemente el referido decreto*". Gipuzkoa eta Araba 1876ko lege berriaren aplikazio malgua eta foru agintaritzaren jarraipenean zeuden, urtez urteko zergen kopuru ekarpena ordaintzeko, eta soldadu kopuruaren ordez, diruz ordaintzera. Dena dela, 1877ko azaroaren 13an kontribuzioen ordainketa eskatu zuenean Cánovasek. Arabak eta Gipuzkoak protestatu zuten eta ondoren, erabaki zuen Gipuzkoan eta Araban ere, foru administrazioa desegitea eta Diputazio probintzial berriak izendatzea.

ONDORIOAK

Izendaturiko Diputazio probintzialak, ogasun zentralari egin beharreko ordainketaren kopurua negoziatzen hasi ziren. Kopurua finkatu zuten baina diru bilketaren jatorria eta ekarpena Diputazioen esku gelditzen zen. 1878ko otsailaren 28ko dekretua argitaratu zuen Canovasek sistema berria finkatzeko eta Espainiako sistema fiskalaren esparruan erabat sartzeko eta berdina izan zedin, 8 urteko behin behineko trantzisioa onartu zuen. Diputazio probintzialak Foru Aldundien ondasunak, adibidez Bizkaian Triano trena, kudeatzeko gaitasun eta eskumenak bereganatu zituzten eta zergak bere kabuz biltzeko ahalmena, 8 urtez behintzat. 1887an berritu egin zen eta horrela kontzertu ekonomiko -administratiboen erakundetzea bideratu zen baina ez, foruen bidezko aginte politikoak, delako "eskubide historikoak". Beraz, ikuspuntu juridikotik Foru Konstituzioaren bilakaeraren jarraipena ezabatu eta amaitu egin zen eta abertzaletasun bikoitzaren joerak puskatzen hasi zen.

Gertakizunen garaikide izan ziren 1877ko bi errepublikanoren ikuspegiak aintzat hartzekoak dira. Ricardo Becerro de Bengoa:[6]

"*Cada una de estas provincias constituye dentro de la federación o fraternidad euskara una especie de estado independiente y autonómico y las tres están unidas en la identidad de la sangre y de la ley formando el Irurac bat de nuestro original y primitivo pueblo. Las tres provincias hermanas tienen, pues, fuertes y estrechos lazos de unión y se reúnen en Conferencias, cuando la gravedad e importancia de los asuntos comunes a todas lo exigen*".

Lehen errepublikan presidente izan zen F. Pi i Margall eta federalismoaren teoriko zenak, *Las nacionalidades* liburu ezagunean honako argitaratu zuen 1877an:[7] "*En España la cuestión de los vascos es mucho más grave que en Francia* (…)" *Vencidos, se trata actualmente no de arrancarles sus fueros, pero sí de quitarles la exención del servicio militar y de los tributos. ¿Serán porque se los quiten más españoles? ¿ Participarán màs de nuestras ideas y de nuestros sentimientos? ¿ No será resultado natural de la diversidad de razas ese antagonismo que entre ellos y nosotros existe? A pòco que se combinen aquí los diversos criterios para la teoría de las nacionalidades, tengo para mí que se habría de estar por la independencia de los vascos. ¿La consentirá España?*".

Bukatzeko Juan Ignacio Iztuetak 1847an argitaratu zuen gogoeta:[8]

"*Euskara hil ezkero Fueroak ez dira biziko; bainan Euskara bizi bada, Fueroak biztuko dira. Fueroak nahi dituanak, maite izan behar du Euskara eta Euskara maite dabenak, Euskaldunai Euskaraz behar die hitzegin eta adierazo, berai dagozkioten gauza guzti guztiak. Bestela, zapuztuko da Euskara, muishinduko dira Euskaldunak eta ihes eingo dute Fueroak.*"

6. Becerro de Bengoa,Ricardo, *El libro de Alava,*Vitoria, 1877, 288 orr.
7. Francisco Pi i Margall, *Las nacionalidades,* (1877).Madrid, Centro de Estudios Constitucionales, 1986, 62-23 orr.
8. J. I. Iztueta, *Gipuzkoako provinciaren kondaira edo historia.* Donostia, I.R. Baroja, 1847